

Elias Arrate Armaolea
Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz,
Bizkaia (1903-1994)

Aurkibidea

Biografia

Munitibarreko bizargilea. 18 urterekin zabaldu zuen denda eta bizarra kentzeaz gain abarketak ere egiten zituen dendan bertan edo inguruko herrietakoetan saltzeko. 1985eko uztailan egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Zintak

MUN-004

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

Pasarteak

1. Bizargile eta abarkagile

- **Erref:** MUN-004/001
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

gaztetan Bilbora sastre ikastera joaten pentsatu zuen, baina azkenean bizargile ikasi zuen. 18 urterekin bizartegia jarri zuen Munitibarren, eta Gernikan ere aritu zen abarketak egiten; azken langintza horretan denbora gutxi iraun zuen. Azkenean, lokak berean jarri zuen abarketan egiteko tailerra eta bizarra kentzekoa. Abarketetarako materiala Azpeitiko Jose Mari Astigarragari erosten zion. Bere dendan eta beste dendei enkarguz ere saltzen zituen.

Transkripzioa

Bueno... neuk esangotzuk neure gaztetaren asittekko ipointtu batzuk. Da lelengo pentzau naban, ba, sastre jutie Bilbora. Sastre, bai, sei illebeta einjje molda politten negola, ba, etxera ekarri nenduen da, ba, lastima ixen san da, gero, ba, gero, ostabe etxi'n pentzau genduen, ba, aitte sanak pentzauban, ba, ostabe, ba, abarketak edo bixerra kentzen ikesi edo barberijje edo soser, da gero barberijje ikesi naban lelengo ostabe. Da, ba, barberijjoi, ba, ipini naban neuk amasortzi urte neukesanien da gero, ba ostabe abarketak egitten ikesi bidala, ba, da tire... abarketak eitten Gerniken. Da Anjel Lejarreta esetetzeana san abarketerue da enaban nik denpora asko eiñ se orduko puntadie botateko manejo andijje artute neun sastrerijjan da. Enaban esebe denporarik eiñ da, ba, tire...

Gero, barberijjok eta sastrerijjok eta, danokiñ ipiñi naban lokalttu bat da gero, ba, oñ iarogei urte eukittuan arte segidutzet lanori da ontxe... urte bi itxitzet danai da oñ emetxe, ba, triski txe traska,... emetxe selan edo alan. Materijjala, Aspeittittik ekartenaban, Jose Mari... Jose Mari... Jose Mari, Jose Marin tall,... sertik, tailerretik ekarteneban ori... Astigarraga, Jose Mari Astigarraga da, ba, arek teiefoniau eskero be bardiñ botateban: neuk ser bien, axe.

Gero, ba neuk emen abarketak einjje, ba saldu berton eittenittun. Gure ixeben deudaku'pe, ba, eurentzako be ia abarketa batzuk eingo neukosan da... es, esileinan nik eiñ se... astotxintxie ser dan estakixu su' paiña, astun sera... amarrie asko eittenaban iigias da are'pe asko... dendakuek siren, Gernikako dendak eta ferreterijjetaku'k eta asko kasteteben, Markiñeku'pe bai tte, ta, ba, danak eitteko ta, ba, eitten be denpora ona bada bierra soser ein bier da, ba, alatxik neure abarketok eta, ba, gero egunin dosena bat eitteko abilldadie euki naban, tela ta aspi.

2. `Markesaren alaba´ eta beste kopla zahar batzuk

- **Erref:** MUN-004/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:46. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>`Markesaren alaba´ eta beste kopla zahar batzuk abesten ditu segidan.</p>

Transkripzioa

Seruak eta lurrak
egin situsana
memoriya argitzen
dator guregana.

Esperantzia badaukat
sedorrek emana
kunplituko dedala
desio dedana.

Desio dedan itza
manifestatzeko
seurekiñ Antonio
nago ixateko.

Amaren malesia
korriora joan da
Antonio il sala
egin suen karta.

Gabe pasatu eta
biyamon goixian
entiarra suen
biarren klasian.

Markesaren alabak
eruan tristesa
eseukan amairik ee
se lagunei segitako.

Exosuak aides aides
iferra dulsie??
landan mintzen dorrien
errekie. ?

Andixek nentorrela
topau neban birjiña ai andrie
orrasketan ebal
buruko ulie.

Etzi bada ai andrea,
neuk ulan sintie
kanie mosten duket?
Madrillen kostie.

Eunteietan daukagu
Medisia telie

urriagas ideskiten?
siderra minbie?

Nor edo seiñ ete da
areren joslie
errege Don Pellipen
alaba lindie. (bis)

Arrate Armaolea, Elias | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com